

<b>2019KO MARTXOAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.</b>  =====	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE MARZO DE 2019</b>  =====
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>ALKATEORDEAK</u></b>	<b><u>TENIENTES DE ALCALDE</u></b>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)  
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)  
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)  
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

<b><u>ZINEGOTZIAK</u></b>	<b><u>CONCEJALES</u></b>
---------------------------	--------------------------

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)  
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)  
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)  
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)  
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)  
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)  
Raquel González Díez-Andino (PP)  
Miguel Ibabe Botella (PP)  
Susana De Cos Yañez (PP)  
Paula Amieva Clemente (GUK)  
Susana Andollo González (GUK)  
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)  
Enrique Olaso García (GUK)  
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)  
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)  
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)

Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)  
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))  
Santiago Sainz Robles (C'S)

**IDAZKARI NAGUSIA**

**SECRETARIO GENERAL**

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletzeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**36.- 2019KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**36.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 27 DE FEBRERO DE 2019.**

2019ko otsailaren 27an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Por unanimidad se aprueba el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 27 de febrero de 2019.

**ALKATETZA**

**ALCALDÍA**

**37.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA: MARTXOAK 8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

**37.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**

### MARTXOAREN 8ARI BURUZ.

Proposamena irakurri ostean, Susana Andollok esku hartu du. Onartutako erakunde adierazpenaren alderdirik interesgarrienak aipatu ditu eta, batez ere, etxeko lanak agerian utzi behar direla. Udalarari eskatu dio baliabide nahikoez hornitzea adierazpenean jasotakoa praktikan jartzeko.

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

### BIZITZAK ERDIGUNERA!

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borroka atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenak, "Bizitzak Erdigunera!" lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria, arrazakeria, xenofobia eta aparofobiari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak

### SOBRE EL 8 DE MARZO.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Susana Andollo recalando los aspectos más interesantes de la declaración institucional aprobada y sobre todo la necesidad de la visibilización del trabajo de los hogares. Pide al ayuntamiento que dote de recursos necesarios para poner en práctica lo que se recoge en la declaración.

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces:

### ¡LAS VIDAS AL CENTRO!

En 2018 la sociedad recibió un mensaje claro ante la respuesta que se dio a los paros de mujeres convocados por el Movimiento Feminista el 8 de Marzo: se llenaron las calles y se impulsaron las redes de colaboración para expresar que la lucha iniciada por las mujeres para reclamar la igualdad de oportunidades no tiene vuelta atrás.

En 2019 siguen vigentes las reivindicaciones de las mujeres bajo el lema de "¡Las vidas al Centro!". Este año también tomará las calles la demanda de las mujeres para tener vidas sostenibles, libres, diversas y dignas. Es necesario denunciar la precariedad laboral y pobreza de las mujeres, luchar contra todas las formas de violencias machistas y rechazar la exclusión, el racismo, la xenofobia, y la aparofobia.

Desde nuestro Ayuntamiento, trabajando para hacer desaparecer todos los sistemas de opresión y

desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdigunean jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar da eta historikoki ukatu zaion balioa onartu eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorrakoak izan daitezten. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enplegutako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Getxoko Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

- Getxoko Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.

- Getxoko Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.

discriminación que afectan a las mujeres, también reclamaremos que las mujeres se planten y que se sitúen las Vidas en el Centro.

¿Y que implica esto exactamente?

En la medida en que todos los trabajos son necesarios para el sostenimiento de la vida, tanto los remunerados como los que no lo son, tenemos que sacar del espacio privado todo el trabajo de cuidados que nos toca mayoritariamente a las mujeres; esto significa, que hay que socializar la responsabilidad del trabajo de hogar y de cuidado, darles el valor que históricamente se les ha negado, y que los hombres, así como las instituciones y entidades públicas tienen que asumir responsabilidad directa.

Resulta estratégico y clave equilibrar el uso del tiempo para que las políticas de igualdad sean efectivas. Entre los ámbitos de referencia en los Indicadores Europeos de Igualdad, intervenir sobre el del Tiempo acarrea cambios en los dominios del Poder, el Conocimiento, el Dinero y el Empleo.

Teniendo en cuenta estos antecedentes el Ayuntamiento de GETXO toma los siguientes acuerdos:

El Ayuntamiento de Getxo asume la responsabilidad de llevar adelante políticas públicas que garanticen la igualdad real y efectiva.

El Ayuntamiento de Getxo asume la responsabilidad de poner en el centro de sus políticas públicas las tareas de cuidado.

-Getxoko Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.

**38.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA: ARRAZA BAZTERKETAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

**ARRAZA BAZTERKETAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Getxoko Udalak euskal gizartearen eta Getxoko gizartearen aberastasun soziokulturala eta aniztasuna gorai patzen ditu. Izan ere, lurralde ireki honen berezko ezaugarriak dira eta hamarkada eta mende ugari daramatzagu horiek eraikitzen, Euskaditik kanpora emigratu duten pertsonen nahiz hainbat txokotatik geurera datozenen eskutik.

Getxoko Udalak gogor salatzen du biztanle-taldeak jatorriagatik, arrazagatik edo etniagatik kriminalizatu edo estigmatizatzeko

El Ayuntamiento de Getxo, con motivo de la huelga convocada por el Movimiento Feminista asume la responsabilidad de facilitar el ejercicio del derecho a la huelga a las trabajadoras y electas municipales.

Al fin, hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones convocadas para el próximo 8 de marzo por el Movimiento Feminista con motivo del Día Internacional de las Mujeres.

**38.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE EL DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA DISCRIMINACIÓN RACIAL.**

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces:

**DIA INTERNACIONAL CONTRA LA DISCRIMINACIÓN RACIAL**

El Ayuntamiento de Getxo celebra la diversidad y la riqueza socio-cultural de la sociedad vasca, es una característica de esta tierra abierta, que se viene construyendo desde hace décadas y siglos con el intercambio y las aportaciones de personas que emigran desde Euskadi hacia otras latitudes y con la llegada de personas procedentes de distintos lugares a Euskadi y a Getxo.

El Ayuntamiento de Getxo manifiesta su más enérgico rechazo hacia cualquier intento de estigmatización o criminalización de grupos de población

saiakera oro eta hori susta dezakeen ekintza edo adierazpen xenofobo edo arrazista oro. Izan ere, giza eskubideen kontrakoak dira, bai eta gure bereizgarri den aniztasunaren, elkarbizitzaren oinarrien eta gure gizartearen funtsezko balioen kontrakoak ere.

Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du gurea bezalako gizarte anitz eta demokratiko baten oinarritzko printzipioak sustatu, mantendu eta horien balioa azpimarratzeko lanean jarraitzeko. Berdintasuna, elkartasuna justizia soziala eta giza-eskubideak izan dira beti gure elkarbizitzaren ardatz nagusia. Gainera, eragile sozial eta politikoei ere konpromiso bera hartzeko eskatzen die.

Getxoko Udalak gizarte osoari dei egin nahi dio gure aniztasuna eta aberastasun soziokulturala defendatzen jarraitzeko, giza-eskubideekiko, harrerarekiko eta elkarbizitzarekiko konpromisoari eusteko eta gure funtsezko printzipioen aurkako edozein ekintza edo adierazpen arrazista edo xenofobo salatzeko.

Enrique Prada saiora sartu da.

OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,  
GAZTERIA ETA EUSKARA

39.- 847/2019 ZENBAKIDUN  
DEKRETUAREN BERRI EMATEA,  
UDALAREN 2018KO AURREKONTU  
OROKORRAREN LIKIDAZIOA

por razón de origen, raza o etnia, cualquier acto o expresión de carácter racista o xenófoba o que pueda incentivar a ello, ya que atentan contra los derechos humanos, la diversidad que nos caracteriza, contra las bases de nuestra convivencia, contra principios y valores fundamentales de nuestra sociedad.

El Ayuntamiento de Getxo se compromete y exhorta a todas las instituciones, agentes sociales y políticos a comprometerse, a continuar trabajando y actuando para conservar, poner en valor y promover los principios básicos de una sociedad diversa y democrática como la nuestra: igualdad, solidaridad, justicia social y los derechos humanos siempre como eje central de nuestra convivencia.

El Ayuntamiento de Getxo exhorta a la sociedad en su conjunto a continuar defendiendo nuestra diversidad y riqueza socio-cultural, a seguir comprometidas con los derechos humanos, con la acogida y la convivencia y a denunciar cualquier acto o expresión racista o xenófoba que atente contra nuestros principios fundamentales.

Se incorpora Enrique Prada a la sesión.

HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS,  
EDUCACIÓN, JUVENTUD Y  
EUSKERA

39.- DACIÓN DE CUENTA DEL  
DECRETO N° 847/2019 DE  
APROBACIÓN DE LA  
LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO

## ONESTEARI BURUZKOA.

Proposamena irakurri ondoren, Inazio Uriartek esku hartu du. Likidazioari buruzko datuak eman ditu. Aurrekontuan zeudenen gainean erabilitako zenbatekoak adierazi ditu. 2018. urterako hasieran aurrez ikusitakoarekiko % 102 gauzatu da. Diru-bilketaren eta Udalkutzaren ondorioz diru-sarrerak gehitu dira, nahiz eta zergak eta tasak ez igo. Diru-sarrerak 103 milioitik gorakoak izan dira eta gastatutakoa 84 milioira iritsi da, beraz, desberdintasun positiboa sortu da, nahiz eta dirua inbertitu den zorra amortizatzen. Hala, legealdi honen amaieran aurrekontuan % 10etik beherako eragina izango du. Ekitaldia 42 milioi euroekin itxi da. Horietatik 32 inbertsioetarako aske daude. Dena den, 32 horietatik 19 kontsumitu dira. Ildo horri eutsiz, ordaindu dituzten inbertsio garrantzitsuenak irakurri dira eta, aldi berean, 2018. ekitaldiko aurrekontuarekin bat gauzatutako udal-jarduera nabarmenenak azaldu ere bai. Halaber, udal arlo desberdinei jarraiki, lortutako helburu garrantzitsuenen berri eman da.

Eduardo Andraderen esanetan, legealdiaren azkeneko urtean gobernu taldeak aurrekontu luzatuan egindako gastuak jakinarazi ditu. Aurten ere gobernu taldea ez da bildutako dirua gastatzeko gai izan, 41 milioi euro soberan gelditu baitira. Hala eta guztiz ere, "catastrazo" izenekoarekin zergak igo zituen eta argi dago udalerrria nahigabetzen eta makaltzen ari dela. Gobernu taldeak ezin izan du kudeatu. Aurrekontuaren % 83 gastu arruntera bideratzen da eta % 17 inbertsioetara,

## GENERAL DEL AYUNTAMIENTO 2018.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte que aporta datos sobre la liquidación, explicando las cantidades dispuestas sobre lo presupuestado, destacando que se ha ejecutado el 102% de lo previsto inicialmente para el año 2018. Valora el incremento de los ingresos que devienen de la recaudación y de Udalkutza, que se ha producido pese a que no se han incrementado ni los impuestos ni las tasas. Los ingresos han ascendido a más de 103 millones y lo gastado ha alcanzado los 84 millones, lo que ha generado una diferencia positiva pese a que se ha invertido también dinero en amortizar deuda, que a final de esta legislatura tendrá una incidencia menor del 10% sobre el presupuesto. El ejercicio se cierra con 42 millones de euros, de los que 32 están libres para inversiones, habiéndose consumido 19 de estos 32, dando lectura a las inversiones más importantes que sufragan, así como explica las actuaciones municipales más destacadas ejecutadas con arreglo al ejercicio 2018. Asimismo da cuenta de los objetivos más importantes logrados por las diferentes áreas municipales.

Eduardo Andrade replica que por último año de la legislatura el equipo de gobierno da cuenta de los gastos realizados en el presupuesto prorrogado y este año tampoco el equipo de gobierno ha sido capaz de gastar el dinero recaudado, ya que han sobrado 41 millones de euros, pero pese a ello subió los impuestos por el "catastrazo" y es evidente que el municipio se entristece y languidece. El equipo de gobierno ha sido incapaz de gestionar el 83% del presupuesto se

baina bakarrik aurrez ikusitako inbertsioen zati txikia egin da. Berak azaldutakoaren arabera, 2018. urtean saltokien % 20k itxi du eta arrazoi bat da aparkalekurik ez izatea. Izan ere, gobernu taldeak ehunaka aparkaleku kendu ditu eta azken orduan aparkaleku berria egitea planteatu du. Bien bitartean, ezinezkoa da Algortan 200 plaza itxi gauzatzea EAJren utzikierarengatik. Bere iritziz, soberakinaren kargura merkatariarentzat baliabide gehiago bideratu behar dira. Esandakoarekin bat, garbiketa zerbitzua asko narriatzen ari da. Gogorarazi du EAJ eta EH Bilduk hitzartu zutela. Hasieran atez atekoa ezarri nahi izan zuten Negurin, baina bizilagun nahiz PPri esker saihestu zen. Bestalde, Getxon lapurretak gehitu dira eta hurbiltasunezko polizia indartzea eskatu du. Auzoetan polizia-etxeak ireki beharko lirarteke eta Udaltzaingoari giza baliabideez eta bitarteko materialez hornitu beharko litzaioke. Getxok ditu alokairurik garestienak Espainia osoan etxebizitza kudeatzean EAJren utzikieriagatik. Familiei eta adinekoei laguntzeko baliabideak bideratzea eskatu du. Romoko Nagusien Etxea konpontzen inbertitu behar da. Gauza bera egin behar da Algortako lokalekin eta zahartze aktiboa, etab. sustatu behar dira. Helburu horietarako erabiliko nituzke soberakin modura gelditu diren 41 milioi horiek eta kobratzeke dauden 11 milioiak kudeatu ere bai.

Ibon Rodríguezek adierazitakoaren arabera, Ogasuneko zinegotziak partaidetza prozesuak aipatu ditu eta berariaz erreparatu dio Romo Kultur Etxekoari. Hori proiektu inposatua izan da, biztanleen babesik ez baitu. La Ventako prozesuari dagokionez,

destina a gasto corriente y únicamente el 17% a inversiones y sólo se realizan una pequeña parte de las inversiones previstas. Indica que en 2018 el 20% de los comercios han cerrado y uno de los motivos es la falta de aparcamiento, criticando que el equipo de gobierno ha eliminado centenares de plazas de aparcamiento, planteando a última hora la creación de un nuevo aparcamiento mientras que siguen sin poder utilizarse 200 plazas cerradas en Algorta por la desidia del PNV. Cree que hay que destinar más recursos a los comerciantes con cargo al remanente. Manifiesta que se está produciendo un gran deterioro en el servicio de limpieza, que recuerda fue pactado por PNV y EH Bildu que inicialmente quisieron imponer el puerta a puerta en Neguri, lo cual se evitó gracias a los vecinos y al PP. Critica también el incremento de los robos en Getxo y pide que se potencia la policía de proximidad, se abran comisarías en los barrios y se dote de más medios humanos y materiales a la Policía Local. Critica que Getxo tiene los alquileres más altos de España por la desidia del PNV en la gestión de la vivienda. Pide destinar recursos para apoyo a las familias y a los mayores, indicando que se ha de invertir en arreglar la Nagusien Etxea de Romo, así como locales de Algorta y en el envejecimiento activo, etc. Para estas finalidades destinaría los 41 millones de remanente y también gestionar los 11 millones pendientes de cobro.

Ibon Rodríguez manifiesta que el concejal de Hacienda ha hecho referencia a procesos de participación, citando expresamente el referido a la Romo Kultur Etxea que ha sido un proyecto impuesto ya que no cuenta con el apoyo de los vecinos. Respecto a



oraindik ekintza desberdinak burutu behar dira. Legealdi honen hiru urteetan osoko bilkuran aurrekontuak eztabaidatzeko ez dira aurkeztu eta bere ustez arrazoia honakoa da: gobernu taldeak ezin dituela akordioak lortu edo ez duela horietara iritsi nahi. Aurkeztutako likidazioa 2016ko aurrekontu luzatuari dagokio eta datuei eutsiz, gutxien gauzatu diren partidak Gizarte Zerbitzuen eremukoak dira. Gauza bera gertatzen da Gaztedi, Berdintasun, Immigrazio eta abarrean, baita ekonomia sustapenaren eremuetan ere. Ildo horretatik, gero eta lokal gehiago dago itxita. Algortako beherapenen azoka arrakastatsutzat jotzea kritikatu du, azoka horretara garai arruntean saltzea ezinezkoa izan dena eraman dela kontuan hartuta.

Santiago Sainzen esanetan, gobernu taldeak bere kudeaketa arrakasta modura planteatzen du. Bere iritziz aurrekontua ez da eraginkortasunez gastatu. Romoko Kultur Etxea ez da herritarren iritzia kontuan hartuta egin eta ez die beharrei erantzuten. Adibide bat izan daiteke data zehatzetan ikasteko gunerik ez izatea, baita adinekoentzat solairu bat egitea ere Romoko Nagusien Etxea mantendu ordez. Izan ere, azkenekoa nahi dute erabiltzaileek. Halaber, Musikebarri proiektuaren inguruan ere ez zaie bizilagunei entzun, beraz, argi dago EAJren politika herritarrei ez entzutean oinarritzen dela. Enplegua ez da udal-jarduerarengatik hobetu, bakarrik beste erakunde batzuek ematen dituzten laguntza ekonomikoak gauzatzera mugatzen baita. Argia da merkataritzaren gainbehera eta Getxo ez da erakargarria unibertsitate proiektuetarako, ezta proiektu

la proceso de La Venta, están todavía pendientes de diferentes acciones. Critica que en tres años de esta legislatura no se hayan presentado para debatir en el Pleno los presupuestos y se debe, en su opinión, a que el equipo de gobierno no puede o no quiere llegar a acuerdos. La liquidación que se presenta se refiere al presupuesto prorrogado de 2016 y las partidas de menor ejecución son las de Servicios Sociales, dando datos al respecto, situación de inejecución que también se repite en partidas relativas a Juventud, Igualdad, Inmigración, etc., y también en ámbitos de promoción económica, recalando que cada vez hay más lonjas cerradas. Critica que se presente como un éxito el mercado de los saldos de Algorta, teniendo en cuenta que se lleva a ese mercado lo que ha sido imposible de vender en época normal.

Santiago Sainz manifiesta que el equipo de gobierno plantea la gestión como un éxito. No cree que el presupuesto se ha gastado de forma eficiente. La Romo Kultur Etxea no se ha hecho contando con la opinión de la gente ni responde a las necesidades, poniendo como ejemplo la falta de espacios para estudio en determinadas fechas, así como la incorporación de una planta para mayores en lugar de mantener la Nagusien Etxea de Romo que es lo que quieren los usuarios. Tampoco se ha escucha a los vecinos respecto al proyecto de Musikebarri, lo que evidencia que la política del PNV es no oír a la ciudadanía. La mejora del empleo no es por la actuación municipal, que sólo se limita a ejecutar ayudas económicas que dan otras instituciones. Es evidente el declive del comercio y la falta de atracción de Getxo para proyectos universitarios e innovadores. Critica la escasa ayuda a

berriztatzaileetarako ere. Merkatariak eta ostalariak laguntza urria dute; euskaraz errotuluak ipintzea besterik ez. Bere esanetan, 31 milioiko soberakina izendatu da gastu orokorretarako, baina horietatik 15 jada gobernu taldeak bere interesetara bideratu ditu, aurrekontua aurkeztu gabe. Aberastasuna eta enplegua sortzeko zerga-presioa jaitea planteatu du eta diru-sarrerari dagokionez, 32 milioiko orekarik eza dago. OHZan esperotakoa baino gehiago jaso da eta, ondorioz, hobe litzateke tasak jaitea. Gauza bera egin beharko litzateke zaintzapeko apartamentuekin, aurrez ikusikoa baino gehiago biltzen baita. Amaitzeko, kritika bat egin du, Gizarte Zerbitzuen kapituluetan milioi erdia baitago gastatu gabe.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

847/2018 zenbakidun Dekretuaren jakitun egon, 2018ko Aurrekontu Orokorraren likidazioa onesteari buruzkoa.

**40.- 1345/2019 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

comerciantes y hosteleros que sólo tienen ayudas para rotular en euskera. Manifiesta que se han nombrado 31 millones de remanente para gastos generales, pero de estos 15 ya se han destinado por el equipo de gobierno a lo que le ha interesado, sin que se haya presentado el presupuesto. Plantea bajar la presión fiscal para generar riqueza y empleo y respecto a los ingresos manifiesta que hay un desajuste de 32 millones. Indica que en el IBI se ha recaudado más de lo previsto y plantea que sería mejor bajar los tipos que se aplican y lo mismo respecto a los apartamentos tutelados, que se ingresa más de lo previsto. Finaliza trasladando una crítica que en los capítulos de Servicios Sociales hay medio millón sin gastar.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del Decreto 847/2019 de aprobación de la Liquidación del Presupuesto General 2018.

**40.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO N° 1345/2019 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

1345/2019 zenbakidun Dekretua  
718.038,00 euroko zenbatekoarekin.  
2019/04 kreditu-transferentzia.  
Ordainketa-gehikuntza egiteko  
finantzaketa.

Decreto nº 1345/2019 por un importe  
de 718.038,00 euros. Transferencia de  
crédito 2019/04. Financiación  
incremento retributivo.

**41.- 1237/2019 ZENBAKIDUN  
DEKRETUAREN BERRI EMATEA:  
KREDITUA PRESTATZEAREN  
BIDEZ EGINDAKO  
AURREKONTUAREN ALDAKETARI  
BURUZKOA.**

**41.- DACIÓN DE CUENTA DEL  
DECRETO Nº 1237/2019 DE  
MODIFICACIÓN  
PRESUPUESTARIA MEDIANTE  
HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen,  
Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako  
Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión  
Informativa de Hacienda, Cuentas,  
Promoción Económica, Recursos  
Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditua prestatzearen bidez egindako  
aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau  
jakintun egon:

Quedaron enterados del siguiente  
decreto de modificación presupuestaria  
mediante habilitación de crédito:

1237/2019 zenbakidun Dekretua  
30.000,00 euroko zenbatekoarekin.  
2019/02F kreditua gaitzea. Punta  
Begoñako galerien balioa  
nabarmentzea, 2018. urtea.

Decreto nº 1237/2019 por un importe  
de 30.000,00 euros. Habilitación de  
crédito 2019/02F. Puesta en valor del  
inmueble Galerías Punta Begoña, año  
2018.

Raquel González saiora sartu da.

Se incorpora Raquel González a la  
sesión.

**42.- ORDAINSARIEN %2,25EKO  
ORDAINKETAGEHIKUNTZA  
ONESTEA.**

**42.- APROBACIÓN DEL  
INCREMENTO RETRIBUTIVO DEL  
2,25% DE LAS RETRIBUCIONES  
PARA EL AÑO 2019.**

Proposamena irakurri ondoren, Paula  
Amievak esku hartu du. Berak  
azaldutakoaren arabera, estatuko  
oinarrizko araudiak gehi daitezkeen  
gehieneko ordainsariak finkatzen ditu.  
Osoko bilkurara hazkuntza orokorra  
ekarri da, baina BGPdak duen

Tras darse lectura a la propuesta  
interviene Paula Amieva que manifiesta  
que la normativa básica estatal fija las  
retribuciones máximas que se pueden  
incrementar. Al pleno se trae el  
incremento global pero existen otros  
posibles incrementos en función de

bilakaeraren arabera, beste hazkuntza batzuk izan daitezke eta eraginkorrak lirateke uztailearen 1etik aurrera. Oraindik ezin dira zehaztu eta defini daitezkeenean osoko bilkurari proposamena egingo diotelakoan daude. Horrez gain, % 0,3 igo daiteke eta jomuga oinarrizko araudiak azaltzen du. Proposamenak akordioari hazkuntzaren % 0,3 ez eranstea kritikatu du, beraz, abstenitu egingo dira, zenbateko hori arloetan, hala nola, hirigintza eta kontratazioan hobekuntza-planetara bidera baitateke. Izan ere, horiek lan asko dute. Halaber, euskaltegiko irakasleen egoerak arautu beharko lirateke. Aukera horiek gobernu taldearen buruan ez egotea kritikatu du, zerbitzu publikora bideratuta ordainsarien berdintasun irizpideetatik abiatuta, langileen politikari buruzko irizpiderik ez baitute.

Inazio Uriartek, % 0,3 bideratzeari dagokionez, gobernu taldeak negoziazio mahaian adostu du horrekin lanpostu guztien ordainsari irizpideak antolatzea. Horretarako, lanpostuak baloratuko dira eta osoko bilkurari aurkeztuko zaio emaitza amaitutakoan.

Ibon Rodríguezen esanetan, proposamenaren alde bozkatuko du, sindikatu guztiak alde daudelako. Izan ere, krisian langile publikoek galdutako erosteko ahalmena berreskuratzeko erabiliko da. % 0,3ri buruz, sindikatuek azaldutakoaren arabera, lanpostuak baloratzeko izango dira. Jada abian da eta beharrezkoa suertatzen da bidegabeko egoerak ebazteko. Balorazioa egiteko atzerapena kritikatu du. Dena den, itxuraz, sindikatuen informazioari jarraiki, legealdi honetan

cómo evolucione el PIB, incrementos que tendrían efectividad a partir del 1 de julio y que aún no se pueden determinar y esperan que una vez que se puedan determinar se presente al Pleno la correspondiente propuesta. También existe otro posible incremento del 0,3% cuyo destino viene reflejado en la normativa básica. Critica que la propuesta no incorpore al acuerdo ese 0,3% de incremento por lo que se abstendrán, ya que ese importe podría dedicarse a planes de mejora en áreas como Urbanismo, Contratación, que se encuentran con mucho trabajo y también para regularizar situaciones del profesorado del Euskaltegi, etc. Critica que esas posibilidades no estén en la mente del equipo de gobierno porque no tiene un criterio de política de personal orientado al servicio público con criterios de igualdades retributivas.

Inazio Uriarte, respecto al destino del 0,3% indica que el equipo de gobierno ha acordado en la Mesa de Negociación que se destine a ordenar los criterios retributivos del conjunto global de los puestos de trabajo a través de la valoración de los puestos de trabajo que será presentada al Pleno cuando se finalice.

Ibon Rodríguez manifiesta que apoyará la propuesta porque la apoyan todos los sindicatos y que sirve para recuperar el poder adquisitivo perdido por los empleados públicos durante la crisis. Respecto al 0,3%, según les indican los sindicatos, se van a destinar a la valoración de puestos de trabajo que está en marcha y que es necesaria para resolver situaciones de injusticia. Critica la tardanza en realizar la valoración aunque al parecer, según la información sindical, se podrá aprobar

onartu ahal izango da.

Eduardo Andraderen esanetan, alde bozkatuko du, akordioak estatuko gobernuak sindikatuekin 2018tik 2020ra lortutako akordioa baitu eta orduan ere alde agertu baitziren.

Inazio Uriartek berriz azpimarratu du proposamenak sindikatu-ordezkaritza guztiaren babesa duela.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 20 boto, EAJ, PP, EH Bildu, PSE-EE eta Ciudadanosenak; 4 abstentzio (GUK).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Lehenengoa.- Funtzionarioen ordainsariak % 2.25 gehitzea, ordainsarien kontzeptuetan 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.

Gehikuntza ondoko irizpideen arabera egingo da:

- Oinarrizko ordainsariak.- Ordainsari horiek funtzionarioari ordaintzen zaizkio bere kidegoa edo eskala atxikita dagoen talde edo azpitaldearen arabera eta horretan duen antzintasunagatik. Horien barruan soldataren osagarriak eta aparteko ordainsarien hirurtekoak daude. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek ezartzen dute zenbatekoa.

- Soldata: Soldataren zenbatekoa sailkapen-taldea edo azpitaldearen

en la presente legislatura.

Eduardo Andrade manifiesta que van a votar a favor porque el acuerdo recoge el acuerdo del gobierno central con los sindicatos para los años 2018 a 2020 que apoyaron.

Inazio Uriarte insiste en que la propuesta cuenta con el apoyo unánime de la representación sindical.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 20 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acuerda:

Primero.- Incrementar las retribuciones del personal funcionario, en los conceptos retributivos en un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos de 1 de enero de 2019.

El incremento se realizará de acuerdo con los siguientes criterios:

- Retribuciones Básicas.- Son las que retribuyen al funcionario según la adscripción de su cuerpo o escala a un determinado Grupo o Subgrupo y por su antigüedad en el mismo. Dentro de ellas están comprendidas los componentes de sueldo y trienios de las pagas extraordinarias. Su cuantía se fija por las leyes de Presupuestos Generales del Estado

o Sueldo: Su cuantía viene determinada por el grupo o subgrupo

arabera ezartzen da eta 24/2018 errege lege-dekretu abenduaren 21koa, Sektore publikoaren ordainsariari buruzko premiazko neurriak onesten dituenaren 3.Bost artikuluan xedatuta dago. 2018. urtearekin alderatuz, % 2,25 gehitu da, 2018ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.

de clasificación y está determinada en el artículo 3. Cinco del Real Decreto-Ley 24/2018, de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público. Respecto de las cuantías del año 2018 han experimentado un incremento de un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos 1 de enero de 2019.

- Hirurtekoak: zenbateko bera izango da azpitalde guztientzat eta lan egindako hirurteko bakoitzeko ordaintzen da. Oinarrizko soldata bezala, 24/2018 errege lege-dekretu abenduaren 21koa, Sektore publikoaren ordainsariari buruzko premiazko neurriak onesten dituenaren 3.Bost artikuluan xedatu da hirurtekoen zenbatekoa eta % 2,25 gehitu da, 2018ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.

o Trienios: consisten en una cantidad, que será igual para cada Subgrupo, por cada tres años de servicio, al igual que el Salario Base, su cuantía se determina en el artículo 3. Cinco del Real Decreto-Ley 24/2018, de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público. Respecto de las cuantías del año 2018 han experimentado un incremento de un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018. Con efectos a 1 de enero de 2019.

<b>Arrunteko Ordainsariak Pagas Ordinarias</b>				
<b>Talde / Azpitaldea / 7/2007 Legea Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007</b>	<b>Hileko Munta (eurotan) Cuantía Mensual(euros)</b>		<b>Urteko Guztirakoa (eurotan) Total anual(euros)</b>	
	<b>Soldata (eurotan) Sueldo (euros)</b>	<b>Hirurtekoak (eurotan) Trienios (euros )</b>	<b>Soldata (eurotan) Sueldo (euros)</b>	<b>Hirurtekoak (eurotan) Trienios (euros )</b>
	A1	1.177,08	45,29	14.124,96
A2	1.017,79	36,93	12.213,48	443,16
C1	764,19	27,95	9.170,28	335,40
C2	636,01	19,02	7.632,12	228,24
<b>(30/1984 Legea) eta</b>	582,11	14,32	6.985,32	171,84

<b>talde profesionalak (7/2007 Legea)</b> E (Ley 30 / 1984) y Agrupaciones Profesionales (Ley 7 / 2007)				
--	--	--	--	--

<b>Aparteko Ordainsariak Pagas Extraordinarias</b>		
<b>Taldea / Azpitaldea / 7/2007 Legea Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007</b>	<b>Soldata (eurotan) <i>Sueldo (euros)</i></b>	<b>Hirurtekoak (eurotan) <i>Trienios (euros)</i></b>
A1	726,35	27,95
A2	742,29	26,93
C1	660,48	24,14
C2	630,21	18,84
<b>(30/1984 Legea) eta talde profesionalak (7/2007 Legea)</b> E (Ley 30 / 1984) y Agrupaciones Profesionales (Ley 7 / 2007)	582,11	14,32

- **Ordainsari osagarriak:** horiekin lanpostuen ezaugarriak ordaintzen dira, lanbide-karrera edo jarduera, errendimendua edo funtzionarioak lortutako emaitzak. Udalbatzaren Osoko Bilkurak ezarriko du zenbateko orokorra Estatuak adierazitako gehienezko eta gutxienezko mugen barruan (TAOLaren 93.2 artikulua).
- **Retribuciones Complementarias:** son las que retribuyen las características de los puestos de trabajo, la carrera profesional o el desempeño, rendimiento o resultados alcanzados por el funcionario. Su cuantía global será fijada por el Pleno de la Corporación dentro de los límites máximos y mínimos que se señalen por el Estado ( art. 93.2 de la LBRL).
  - **Complemento de Destino:** Correspondiente al nivel del puesto que se desempeñe, cuya cuantía se fijará
- **Lanpostu-mailako osagarria:** Lanpostuaren mailaren arabera da eta osagarriaren zenbatekoa urtero ezarriko da Euskal Autonomi

Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1a artikulua ezartzen duen bezala; aurrekontu horiek % 2,25 gehituta, 2018ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin, 2/2019 LEGEA, otsailaren 14koa, lantsaren arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa ezartzen duenez.

- Osagarri berezia: zailtasun tekniko bereziko baldintzak ordaintzen ditu, baita dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskua edo nekagarritasuna ere. Lanpostuen zerrendan ezartzen da horren zenbatekoa. Irizpide horiek aplikatuz gero zenbatekoak aldatu behar dira; lanpostuen zerrendan jasotako zenbatekoak eta lanpostu-mailako osagarria. Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio onespina egitea eta % 2,25eko gehikuntza egitea, ordainsarien kontzeptuetan 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.
  - Antzinasunezko osagarri pertsonala eta osagarri pertsonal iragankorra: Getxoko Udaleko langile batzuek horiek jaso izan dituzte, 2008ko urriaren 31n osoko bilkurak hartutako erabakiaren bidez onartutako Ordainsarien Egokitzearen ondorioz. Erabaki horrek aurretik jasotzen ziren ordainsarien kontzeptuak UDALHITZ erabakian jasotako xedapenetara egokitu zituen. Aipatutako UDALHITZ erabakiaren 85. artikuluan, aurreikusi zen osagarri horiek jasoko zirela ordainsari-sistema berria aplikatzeagatik, aurretik jasotzen ziren ordainsariak murrizten ziren kasuetan. Osagarri horiek eguneratu ahal dira; beraz, indarreko zenbatekoei % 2,25eko ordainsarien kontzeptuetan 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin gehikuntza aplikatu behar zaie osagarri pertsonal iragankorra dagokien langileei. Gehikuntzak eginda, hauek izango
- anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi tal y como determina el artículo 79.1a de la ley 6/1989 de 6 de julio de la Función Pública Vasca, y que para este ejercicio 2019 se han visto incrementados en un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos de 1 de enero de 2019 tal y como se recoge en Ley 2/2019, de 14 de febrero, de medidas presupuestarias urgentes para el ejercicio 2019 en materia de retribuciones y otros aspectos relativos a la prórroga.
  - Complemento específico: retribuye las condiciones de especial dificultad técnica, dedicación, responsabilidad, incompatibilidad, peligrosidad o penosidad y su cuantía viene fijada en la Relación de Puestos de Trabajo. La aplicación de estos criterios supone un cambio en las cuantías que tiene reflejo en la RPT, y también en el complemento de destino, por lo que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local corresponde al Pleno su aprobación e incremento en 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos de 1 de enero de 2019.
  - Complementos Personales de Antigüedad y Transitorio: Parte del personal al servicio del Ayuntamiento de Getxo viene percibiendo como consecuencia de la Adecuación Retributiva aprobada mediante acuerdo plenario de fecha 31 de octubre de 2008. Dicho acuerdo adecuaba a las disposiciones recogidas en el acuerdo UDALHITZ los conceptos retributivos que anteriormente se venían percibiendo. El artículo 85 del citado UDALHITZ preveía la percepción de estos complementos para aquellos supuestos en los que por aplicación del nuevo sistema retributivo se produjera una minoración sobre las retribuciones que se vinieran percibiendo anteriormente. Estos complementos son actualizables por lo que corresponden aplicarles un incremento de un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos de 1 de enero de 2019, respecto de las cuantías personales



dira antzinasunezko osagarri  
pertsonalaren indarreko zenbatekoak  
azpitalde bakoitzarentzat:

que tienen todos aquellos trabajadores que tienen asignado un Complemento personal transitorio y en cuanto al complemento personal de antigüedad las cuantías vigentes para cada uno de los subgrupos con el incremento operado serán las siguientes.

<b>Taldea / Azpitaldea EBEP</b> <i>Grupo / Subgrupo Ley 7/2007</i>	<b>CP</b> <b>Hirurtekoak</b> <i>Trienios CP</i>
A1	32,47€
A2	31,53€
C1	27,12€
C2	27,59€
<b>Talde profesionalak</b> Agrupaciones profesionales	28,09€

Bigarrena.- Langileen ordainsariak % 2.25 gehitzea 2018ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin funtzionarioen kontzeptu berberetan.

Segundo.- Incrementar las retribuciones del personal laboral en conceptos análogos a los del personal funcionario en un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos de 1 de enero de 2019.

Hirugarrena.- Behin-behineko langileen ordainsariak % 2.25 gehitzea 2018ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2019ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.

Tercero.- Incrementar las retribuciones del personal eventual en un 2,25% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2018, con efectos de 1 de enero de.

<b>KATEGORIA/CATEGORIA</b>	<b>Urteko Guztirakoa (eurotan)</b> <b>Total anual(euros)</b>
UDAL TALDE POLITIKOEN ADMINISTRARIA (%50)	14773,22€
UDAL TALDE POLITIKOEN AHOLKULARIA (%50)	28507,18€
UDAL TALDE POLITIKOEN ADMINISTRARIA	29546,58€
ALKATETZAKO ADMINISTRARIA	31818,51€
UDAL TALDE POLITIKOEN AHOLKULARIA	57014,37€

ALKATEAREN AHOLKULARIA	57014,37€
------------------------	-----------

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, aipatutako erabakiak aplikatu ahal izateko. Cuarto.- Aprobar la modificación de la RPT en orden a la aplicación de dichos acuerdos.

Bosgarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabakiak betearazteko. Quinto.- Facultar al Alcalde para la ejecución de los acuerdos.

Seigarrena.- Erabaki hau BAOn argitaratzea, baita aurreko bigarren puntuan ezarritakoaren arabera aldatuko den Lanpostuen Zerrenda ere. Sexto.- Publicar el presente acuerdo, juntamente con la RPT modificada por el contenido del punto segundo anterior, en el BOB.

**43.- GETXOKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA. 2016-2019 ALDIA (5. ALDAKETA).**

**43.- MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2016-2019 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS DEPENDIENTES (5ª MODIFICACIÓN).**

Proposamena irakurri ostean, alkateak adierazi du Ciudadanosen zuzenketa bat dagoela.

Tras darse lectura a la propuesta el Alcalde manifiesta que hay una enmienda presentada por Ciudadanos.

Santiago Sainzek ondorengo zuzenketa irakurri du:

Santiago Sainz da lectura a la siguiente enmienda:

*"1.- 2016-2019 denboraldirako GETXOKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA izeneko dokumentua ALDATZEA, 6. lerro estrategikoari dagokionez (FITXA):*

*"1º.- MODIFICAR el documento denominado PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTONOMOS. Periodo 2016-2019 en relación con la línea estratégica N°6 (FICHA):*

*Helburu zehatzak:*

